



NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ, ZUMAIA UDALEKO BEHIN BEHINEKO

IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT

2023ko martxoaren 30eko Ohiko Osoko Bilkuran ondorengo ordenantzari hasierako onarpena ematea onartu zela ondorengo botoekin (14 aldeko botoak -8 EH Bildu; 5 EAJ-PNV eta 1 ES-SV).

“ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA (ELE) ARAUTZEKO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA.”

Lehena.- Hasierako onarpena ematea eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) arautzeko ordenantzari.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez 30 eguneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, Idazkaritzak emaitza hori egiaztatuko du, eta ordura arteko behin-behineko akordioa behin betikotzat joko da (TAOL, 49.c art.).

Hirugarrena.- Indarrean jartzea. Ordenantza indarrean jarriko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, erabakia argitaratu eta lege horren 65.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau eman dut,

Zumaian,

IDAZKARIA,

O.E. ALKATEA,

Dokumentu kod.	2023IERR0003-H23/00097
CUDO kodea	000.0081.AAAAE4TP.6.J6CT
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzf.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE4TP6.J6CT